



Zazpi Antxumeak

Behin batean ahuntz ama eta zazpi antxume bizi ziren txabola batean. Antxumeak oso politak ziren: batzuk beltzak, besteak txuriak, eta besteak gorriak. Baina denek berdin, esnea edan eta esnea edanez, mutur txikia txuri-gorri, txuri-gorria zuten zazpiek. Zazpiak potxolo-potxoloak ziren.

Halako batean, beste askotan bezala, etxea garbitu eta umeak apaindu ondoren, ahuntz amak honela esan zien:

–Umeok: oraintxe azokara joan behar dut, saldu-erosiak egitera; ni etorri arte, bakarrik geratzen zarete. Eta begira; ez inori aterik zabaldu! Otsoa inguruan dabil, uste gabe otsoa txabolan sartzen bada denak jango zaituzte.

–Ez, ama, ez; ez dugu zabalduko aterik inorentzat.

Eta ahuntz ama azokara joan zen lasai-lasai. Baina otsoak ikusi egin zuen ahuntz –ama azokara joaten; eta poliki-poliki antxumeen txabolara joan eta:

–Dan-dan– atea jo zuen.

–Nor da?

–Ama naiz; ireki, zabaldu atea.

–Ez, ez; zu otsoa zara. Amak ez du halako eztatari latzik.

Otsoa, lurra ostikoz jota, oiloaren etxera joan zen:

–Oilo andrea: ekarri azkar-azkar hamabiren bat arrautz, eztatari latz hau pixka bat goxatzeko.

–Torizu otso jauna; baina begira inori kalterik egin!

Otsoa hamabi arrautzak janda, antxumeen txabolara joan, eta:

–Dan-dan, atea jo zuen.

–Nor da?

–Ama naiz; ireki; zabaldu atea.

–Ez, erakutsi hanka katazulotik.



Eta otsoak hanka kata-zulotik erakutsi zuen. Baina antxumeek:

–Ez, ez; zu otsoa zara. Gure amak txuriak ditu hankak.

Otsoa, lurra ostikoz jota, errotariaren etxera joan zen:

–Errotari jauna: ea, ekarri azkar-azkar irin txuria, hanka beltz hauek zuritzeko.

–Torizu otso jauna. Baina begira, inori kalterik egin!

Eta dena txuri-txuri eginda, berriz antxumeen txabolara joan zen:

Dan-dan, atea jo zuen.

–Nor da?

–Ama naiz; ireki, zabaldu atea.

–Ea, erakutsi hanka, katazulotik.

Otsoak hanka txuri-txuria erakutsi zien katazulotik; eta orduan antxumeek atea zabaldu.

Ene, bada! Antxumeak hasi ziren ihesi; baina otsoak *grausk!* eta *grausk!* banan-banan denak tripara iruntsi zituen.

Denak ez; txikien, isil-isilik, erlojuaren atzean ezkutatu zen. Otsoa, orduan, sabela ederki beteta, ibai ondora joan zen lotara.

Ahuntz amak, etxera etorri zenean, atea jo ta jo; baina inortxok ere ez erantzuten; eta negarrez hasi zen.

Nire antxume txikiak,
gorri, beltz eta zuriak,
guri-guri nik haziak!
Zori txarrean hemen etxean
gaur nik bakarri utziak:
non zarete, non,
nire ume txikiak?
Nire antxume mutur zuriak,
zuri-gorri, zuri-gorriak
berdin zazpiak.

Txikiena, amaren negarra entzutean, buru txikia erloju atzetik aterata, lasterka amaren besoetara joan zen. Eta berehalako batean amari dena kontatu zion. Ahuntz amak orduan asmo bat hartu zuen: guraizeak, jostorratza, haria eta titarea hartu, eta otsoaren bila joan zen. Otsoa lo zegoen ibai ondoan.



Eta ahuntz amak, poliki-poliki, esnatu gabe, guraizez sabela ireki zion otsoari, eta sei antxumeak hantxe atera ziren banan-banan, bizi-bizirik, saltoka eta jauzika.

–Ixo, maiteak, ixo, otsoa esnatu gabe! Ea, ekarri harriak!

Eta otsoari sabela harriz bete-bete egin, eta gero jostorraz eta hariz larrua josi. Berehala beren txabolara joan ziren berriz ere. Haien poza orduan!

–Otso gaiztoak
gezurra guri.
Baina amatxok
berriz itzuri.

Otsoa esnatu zenean, egarri zen, asko jan baitzuen, eta ibaira joan zen ura edatera; baina sabeleko harrien astuntasunez, *pulunpup!* Ibaira erori zen eta hantxe ito.

Antxumeak ordua kanta-kantari hasi ziren:

–Otsoa ito da;
hau gure poza!
Orain amarekin
Gaitezen goza.

Eta handik aurrera, beti amatxoren esanak eginez, ederto bizi izan ziren antxumeak.

Antxume mutur txikiak
Txuri-gorri, txuri-gorriak
Berdin-berdinak zazpiak.

Don Manuel Lekuona / Itziar Zubizarreta.